BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSA-OHARRA**

**Herri Lan eta Garraioetako Batzordea**

# Bizkaibuseko autobusen kanpoaldean iragarkiak jartea ez da onartu Batzar Nagusietan

*Bilbon, 2012ko azaroaren 9an*

Bizkaiko Batzar Nagusiek ez dabe onartu Bizkaibuseko autobusen kanpoaldean iragarkiak jartea eskatzeko Socialistas Vascos Taldearen Arauz Besteko Proposamena. Joaquín Colmenero batzarkide sozialistaren esanetan, zerbitzu publiko hori mantendu eta hobetzeko balio eikean sarrera gehigarriak lortzera bideratutako neurri horrek, "krisialdiak dituan eraginak arintzearren". Aurkako botoa Euzko Abertzaleak eta Bildu Taldeek emon dabe.

Aurkako botoa emoteko Euzko Abertzaleak Taldeak iragarritako arrazoiak izan dira publizidade kontuetarako kontratua dagoala indarrean, alde batetik, eta gaur egun Bizkaibusek daukan irudi eskuliburuaren aurka joango litzatekela, bestetik. Jon Larrea batzarkideak esan dau autobusetan publizidadea jartea zerbitzuaren irudi korporatiboaren "kalterako" izango litzatekela. Bildu Taldeak, bere aldetik, proposamena kentzeko eskatu deutso aurkezleari, beste ekimen bat aurkeztu ahal izateko azterketa zabalagoa egin daiten, non aurreikusi daitena publizidadea euskarri digitaletan sartu ahal izatea.

Bizkaiko Talde Popularrak sozialisten ekimenaren alde bozkatu dau, azterketea egitea begi onez ikusten dauelako, baina esan dau tamalgarria dala sozialistek onartu ez izana neurri hori Metro Bilbaoko trenetara be zabaltzea eskatzeko eurek aurkeztu daben zuzenketea. Gainontzeko Taldeek ulertu izan dabe Metroari buruzkoak Bizkaiko Garraioen Partzuergoari eskatu behar jakozala.

## Hobekuntzak oinezkoentzako pasabideetan

Beste alde batetik, Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak ahobatez onartu dau Garaizarreko bidea (Iurreta) autopistearen ganetik igaroteko oinezkoentzako pasabideari buruz Socialistas Vascos Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena. Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, Itziar Garamendik, azaldu egin dau obra hori, errepide hori Geregiaga inguruan hobatzeagaz lotutakoa, eta esan dau bermealdian dagoala oraindik eta lanak, oinezkoentzako espaloienak barruan dirala, oraindik amaitu barik dagozala. Socialistas Vascos Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamenean esaten zan Aldundiak ez dauela bete Iurretako Udalak egin eutsan alegazinoan eskatutako pasabidea, hain zuzen be "metro biko espaloiduna

eta segurtasuneko hesi eta guztiduna”.

N-634 errepidea zeharkatzeko Abadiñon dagoan oinezkoentzako pasabideari buruz Socialistas Vascos Taldeak aurkeztutako beste Arauz Besteko Proposamena ez da, ostera, onartu. Socialistas Vascos Taldeak ekimena aurkezterakoan esaten eban egitura horrek “hainbat akats ditu, bertatik dabilzanak arriskutan jarterainokoak”, batez be umeak badira. “Horizontalean jarritako kablez eginda dago eta kableok nasaituta dagozanez, tarte handiegia geratzen da” esan dau Joaquín Colmenero batzarkide sozialistak. Porposamenaren aurka Euzko Abertzaleak Taldeak bozkatu dau (6 boto), esanez pasabideak bete egiten dauela indarrean dagoan araudia. Nerea Ahedo batzarkide abertzaleak esan dau segurtasun ezaren “sentsazinoa” dala segurtasun “eza” baino gehiago. Sozialistek (2) eta popularrek (2) alde bozkatu dabe, eta Bildu Taldeko hiru ordezkariak abstenitu egin dira.

**NOTA DE PRENSA**

**Comisión de Obras Públicas y Transporte**

# Las Juntas Generales rechazan la instalación de publicidad exterior en los autobuses de Bizkaibus

Bilbao, a 9 de noviembre de 2012

Las Juntas Generales de Bizkaia han rechazado este mediodía una Proposición No de Norma del Grupo Socialistas Vascos que perseguía la instalación de publicidad exterior en los autobuses del servicio de Bizkaibus. El apoderado socialista, Joaquín Colmenero, entendía que proponer nuevas vías de financiación que ayudasen a paliar los efectos de la crisis podía servir para "mantener y mejorar este servicio público". La iniciativa ha sido rechazada por los votos contrarios de los representantes de los Grupo Nacionalistas Vascos y Bildu.

La existencia de un contrato vigente en temas publicitarios y una ruptura del manual de imagen existente en la actualidad, han sido las dos razones esgrimidas por el Grupo Nacionalista para rechazar la propuesta. Según Jon Larrea, la publicidad en los autobuses "desvirtuaría" la imagen corporativa del servicio. Por su parte, Bildu ha pedido la retirada de la proposición para que se plantee otra iniciativa que abarque un estudio más amplio, en donde se incorpore la posibilidad de introducir publicidad en soportes digitales.

El Grupo Popular Vizcaíno ha apoyado la iniciativa socialista por entender que hubiera sido "positivo" este estudio, aunque ha lamentado el rechazo de éstos a aceptar una enmienda suya para estudiar la extensión de esta medida a las unidades de Metro Bilbao. El resto de grupos ha entendido que las mejoras en el suburbano deben de pedirse en el seno del Consorcio de Transportes de Bizkaia.

## Debate sobre mejoras en dos pasarelas peatonales

Por otra parte, la Comisión de Obras Públicas y Transporte ha aprobado por unanimidad una propuesta socialista para instar a la Diputación a mejorar un puente que cruza el camino Garaizar (Iurreta) sobre el tronco de la autopista A-8. La Diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha tomado la palabra para explicar que esta obra , incluida en las labores de mejora de la autopista en Geregiaga, está en periodo de garantía y que los trabajos, no concluidos aún, incluyen la adecuación de las aceras y otros elementos. La proposición No de Norma del Grupo Socialista recogía una alegación presentada por el

Ayuntamiento de Iurreta que pedía a la Diputación diseñar una nueva estructura "con aceras de dos metros y barrera de seguridad".

En lo que respecta a la pasarela construida sobre la N-634 a la altura del barrio de Matiena en Abadiño, la Comisión ha rechazado la iniciativa del Grupo Socialista que sostenía que la estructura presentaba "importantes deficiencias que ponen en riesgo la seguridad de los viandantes", especialmente la de los niños. El cableado horizontal de sus barandillas se "encuentra destensado" lo que "deja una altura excesiva", ha defendido el socialista Joaquín Colmenero tras mostrar unas fotos. La proposición ha sido rechazada por los votos contrarios del Grupo Nacionalistas Vascos (6 apoderados), al entender que la pasarela cumple con la normativa vigente. Se trata de una situación de "sensación" de inseguridad más que de "falta" de seguridad, ha afirmado la apoderada nacionalista Nerea Ahedo. Socialistas (2) y populares (2) han votado a favor de la proposición, mientras que Bildu, con sus 3 representantes, se ha abstenido.